

## HONDARRIBIKO BILERA BEREZIAK

1981-XII-28-29

Fr. Luis Villasante  
Euskaltzainburua

### Hasierako hitzak

Euskaltzaindiko lagunak: Agur!

Azkenaldi honetan badira gure artean bi gai edo puntu, aski larriak eta auzipean daudenak. Noizbait irteera bat eman beharko zaie. Eta hain zuzen, horretarako jarri ditugu bilera berezi hauek: hemen soseguz, patxadaz, banabanaka bi gauzaok erabakitzeko. Erabaki aurretik, ordea, iritziak beharko dira entzun, elkar hizketa egin, eta giro egoki batean eta guztion artean zer komeni den, ikusi.

Bi puntuok zein diren badakizute jadanik:

1. Lehenbizikoa: Hiztegi berezituena. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu den Ramon Labaien jaunak ofizio edo eskutitz bat egin digu (1981-XII-1) (1). Bertan esaten du hiztegi gintzan ari direnen diru-eskariak izaten dituela. Hiztegiok guztiz desberdinak eta kontrajarriak ere izan ohi direla. Eskabide horiei erantzuna eman aurretik, eta Estatutoan Euskaltzaindia aholku-emaletzat hartu denez gero, Instituzio honen erizpideak jakin nahi dituela. Eskutitz honetako azken lerroak uste dut direla gurekin zer-ikusi gehiena dutenak. Hona hemen hitzez-hitz:

“Zentzu honetan, beraz, interesgarri bezain beharreko dakiguke hiztegiekiko gure jarrera nola izatea nahi zenuketen adieraztea, euskara normaltzeko, finkatzeko eta gizarteratzeko hildo berdinez abia gaitzen.”

Eta ez hori bakarrik. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ere “Euskara Zerbitzuaren Aurkezpena. Lan-programa” delakoa bidali digu. Hor ere azken urteotako hiztegiak aipatzen dira eta Euskaltzaindiari eske bat egiten zaio:

---

(1) Eskutitz hau baino lehenago iragarki bat agertu zen periodikoetan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jarria. (Ikus, adibidez, *Deia*, 1981, Maiatzak 14). Bertan dei bat dator hiztegi berezitu batzuk egin daitezen. Eta beste baldintzen artean, honako eskatzen da: Euskaltzaindiaren aholkularitza.

“Gauza ezaguna da, dena dela, saio hauek sortu dituzten hobekuntzak hain begien bistakoak izanik ere urruti gaudela oraindik jakintza sail eta irakasmaila desberdinetan batasunbide orohartzaille batera iritsi izatetik. Are gehiago: zuzenean edo zeharbidez gai honekin dihardutenen artean dauden oinarrizko eritzi-desberdintasunak, inoiz ez bezalako gordintasunez ari dira azkenaldi honetan kaleratzen. Euskara Zerbitzuak, guzti hori gogoan izanik, eskabide estua egiten dio Euskaltzaindiari gaia bere orokortasunean azter dezan eta, berari legokiokkeen neurrian, arazo larri honen konponbiderako proposamendu eraginkorrak era ditzan.”

Aipatu ditudan bi pasarte hauetan uste dut guztiz garbi azaltzen dela Eusko Jaurlaritzak eskatzen diguna. Batasun eza nabaitzen da irakaskuntza eta jakintza saileko terminologian. Horrek bere ondorio larriak ditu. Zer egin gaitz hori erremediatzeko? Nola jokatu behar duen galdetzen digu.

Labaien jaunaren jarrerari guztiz jatorra deritzot. Gobernua Administrazioa da baitipat. Hiztegi bat ona ala txarra den epaitzeko, bera ez da nor. Orduan normala da hartako jarria den Instituzioari aholku edo iritzi eskatzea. Guk, Pilatosek bezala, eskuak garbitzen baditugu, ez dakit geure eginbidea betetzen dugun.

Hezkuntzako Euskara Zerbitzuak, berriz, zerbait gehiago nahi lukeela dirudi, hots, batasun ezaren konponbiderako proposamendu eraginkorrak Euskaltzaindiak eratzea.

Horra, bada, bi puntuetarik lehenbizikoa zertan den garbi adierazia.

2. Bigarrena: Euskal Irakasle Titulu edo, orain esaten den bezala, Euskararen Ezagupen Agiria emateari Euskaltzaindiak utzi behar ote dion, ez dion. Eta uztekotan noiz (orai edo pixka bat geroago), non (Komunitate autonomoan soilki, ala Euskal Herriko hedadura guztian), eta zer baldintzekin (transferentzia egin behar bada, ez ote dira hari-mutur batzuk lehenik ondo lotu behar?). Uste dut hauek direla galderak.

Arazo honen historia laburra egin dezadan. Oker ez banaiz, 1972. urtean erabaki zuen Euskaltzaindiak euskal irakasle titulua sortzea. Garbi ikusten zen orduan, irakaskuntza bultzatu ezik, euskarak ez zuela irauteko biderik. Hizkuntza honentzat eskolako atak itxiak zeuden. Beste alde, irakasleak non ziren? Eta irakaslerik gabe, eskolarik ez. Behar zen zerbait egin. Garai hartan bestek ezin egin zezakeen, eta orduan Euskaltzaindiak beregain hartu zuen zama hau.

Denek bazekiten, noski, egoera normal batean Hizkuntz titulua emate hori ez dela Akademiaren zeregina (2). Eta egoera normaltzen zen ber, zama edo lanbide horretarik gure Euskaltzaindia arindu beharko zela. Galdera hau da: Ez ote da ordu hori jadanik heldu?

---

(2) Hori gora-behera, gogoan har gure Arautegiak bere lehen artikuluan Euskaltzaindiaren xedearen artean honako hau jartzen duela: “j) expedir los oportunos títulos y certificados”.

Oker ez banaiz, lau mila diploma banatu dira titulu hau sortu zenetik; zortzi mila etsamina egin ere bai. Gaur egun, ordea, Ipar aldean, Bordeleko Unibertsitatearen babespean sortu da euskararen diploma. Komunitate autonomoan Eusko Jaurlearitzak, dirudienez eta bidezko denez, titulu emate horren arazoa bere gain hartu nahi du. Baina Nafarroa ere hor dago. Uste dut denok gatzozela bat puntu honetan: arazo hau, goizago edo beranduago, Euskaltzaindiak utzi behar duela. Kuestioa da noiz, non eta nola. Ez dezagun ahantz Euskaltzaindiaren lur eremua Komunitate autonomoarena baino zabalagoa dela.

Ekainaren 23an Zuzendaritzako bilera egin zen Donostian. Eta han erabaki zen, inork kontrarik egin gabe —“nemine discrepante”, alegia—, tituluak emateari uztea. Aitortu behar dut forma aldetik egon zirela agian akats batzuk: 1) Aurretik ez zela gaia iragarri, eta bilerara joan ginenok horrelako erabakikizuna —nolabait esan— aurkeztuko zela ez genekiela. Baina, beste aldetik, inork ere ez zuen kontrako iritzirik agertu. 2) Irakaslego batzordeari ez zitziola alde zuzenik bere iritzia eskatu. Ez dut esaten nahi-eta-ez hori egin behar zenik, baina arrazoizko dirudi. 3) Horrelako erabaki bat hartzeko Zuzendaritza soila gai ote den, ez dakit. Nolanahi ere, Euskaltzaindiko batzarre osoa edo Plenoa da, duda gabe, horrelako erabakiak hartzeko gai. Hurrengo batzarrea Maulen egin zen, eta han gai hau ez zen ukitu ere. Uztaillekoan, bai, ukitu eta eztabaidatu zen. Baina batzarreak Zuzendaritzak hartutako erabakia ez zuen deuseztatu. Zehaztasun edo xehetasun batzuk jarri zizkion bakarrik. Batzarre honen agiria Euskera-ren azken zenbakian duzue (3).

Gero, berriz, Urriko batzarrean Irakaslego batzordeak bere txosten edo dossierra aurkeztu zuen, auzi honi buruz bere ikuspuntuak azalduz.

Azaroaren 13an Zuzendaritzako bilera egiten da. Bertan Satrustegi jaunak “Irakaslego batzordearen dossier-txostenari ohar zenbait” izeneko beste txosten bat aurkezten du.

Uste dut funtsean akort gaudela guztiok: Euskaltzaindiak zeregin hau utzi behar duela. Baina xehetasunetan edo puntu partikularretan ez datoz guztiok bat.

Jaunok, irteera bat eman behar zaie bi auzi hauei. Eta irteera bat, ahal dela, ona, ez nolabaitekoa. Horretarako iritzia behar dira entzun —egia da batzuenak entzun ditugula, baina beste batzuenak ez—. Erabakia, berriz, euskaltzain osoek bakarrik hartuko dute, Arautegiak agintzen duenez.

\* \* \*

Bihur nadin hiztegien gaira, gaurko gaia da eta.

Hiztegia Euskaltzaindiaren zeregin nagusienetakoa dela ezin uka genezake. Egia da hiztegi berezitez edo espezializatuez dela oraiko kontua, hots,

(3) Ikus E (1981), 789.

Irakaskuntza, Jakintza eta Administralgo sailean erabili behar diren hitzena; baina sail horren ardura ere Euskaltzaindiak nolabait izan behar du. Bestela gertatuko da —eta gertatzen ari da, entzun duzuenez— batasun ezagatik anarkia, nahaspila eta kaos izugarria sortzen dela. Eta erabili behar diren hitzetan batasunik ez dagoelako, porrot egin dezakete Irakaskuntza eta Jakintza sailean gaur egiten diren saioek. Gainera, Irakaskuntza eta Jakintza sailaz landara, hor da Administralgoa, eta, hitz batez esateko, euskarari ofizialtasuna aitortzetik heldu zaizkion premia berriak. Mundu izugarri zabala da hau. Euskara ez da erabilia izan orai arte eremu horietan, ez dago beraz trebatua, eta hasiberri honetan anarkia zerbait egotea ez da batere mirakuilu.

Euskaltzaindiak, berak bakarrik, itsaszabal hau lant dezakeela eta osoki ingura eta besarka dezakeela pentsatzea, amets egitea da. Utzi behar du saioak egin daitezela. Baina beharbada koordinaketa modu bat bilatu beharko luke, lan guzti hau batasun orokor baten barnean egin dadin. Gainera, ez dugu ahortzi behar Eusko Jaurlaritzaren eskabide formal bat dugula. Eskabide hori aintzat hartu behar dugu.

Inoiz esan da gure artean Jakintza eta Ikerketa munduan egunoro asmatzen diren hitz berrien arta izatea ez dagokiola Akademiari; hitz horiek espezialistek asmatzen dituztela, eta kitto. Baina hau erdizkako egia baizik ez da. Hain zuzen, azken hilabete hauetan zabaldu da Prentsan Real Academia Española 10 leku berrirekin gehitu duela akademikoen kopurua, eta 10 akademiko berri horien zeregina honako hau izango dela: gaztelania hizkuntzari espezialisten munduko terminologia nola harrarazi aztertzea (4). Hamar akademiko berri horien artean Prados Arrarte da bat.

Lekutan gaude gu! Maila askoz apalagoko terminologia da euskarak etxekotu behar duena: gizarte hiritartu eta moderno batean behar-beharrezkoa dena eta Irakaskuntzako eta Administralgoko mundu arruntean erabili ohi dena. Asmatzaile edo inbentoreek berek asmatzen dituztela hitzok esatea eta arazoa haien esku uztea, “Gauza egin gabe geldi bedi” esatea bezalaxe da.

Hiztegi berezituaren arazo hau Euskaltzaindiko batzarrean behin eta berriz tratatu da, baina gaur arte zer egin behar den ez dugu aurkitu. Iraileko batzarrean nik txosten edo proposamen bat aurkeztu nuen. Proposatzen nuen, alegia, Euskaltzaindi barruan bi edo hiru So-egile —nolabait esan— izendatzea, eta hiztegiari buruz iritzi ematea horien esku uztea (5). Gauza eztabaidatu zen, baina ez zen deus erabaki, eta auzia mahai gainean gelditu zen. Urriko batzarrean berriz ere eztabaidatu zen; gainera, zenbait euskaltzai-

---

(4) Orai berriki Madrilan egon ginenean galdetu nion hau Alonso Zamora Vicente jaunari, eta baietz, hala zela esan zidan.

(5) Baina ez dakit zama astunegia hartzea ez ote den. Euskaltzaindiak arau nagusi batzuk aitzinetik emanak ez baditu, so-egile horiek nola bete dezakete beren lana?

nek izkribuz beren txostenak ekarri zituzten: Juan Martin, Mitxelena, Krutwig eta Altunak.

Badirudi minimo batean ados gaudela guztiok: Euskaltzaindiak erabaki dituen gauzak gordetzen dituela —edo ez dituela gordetzen— hiztegi batek: hori guttinez esan dezakegula. Soluzio hau erraza da, baina badirudi guttiegi dela.

Agian Euskaltzaindiak formula bat bilatu beharko luke honelako eskabi-deei erantzuteko. Esate baterako, hau, edo honen antzekoren bat:

“Euskaltzaindiak uste du Uzei-ren (edo beste talderen baten) hiztegiak, oro har, probetxuzkoak izan daitezkeela euskararen egoera honetan. Horrek ez du esan nahi, ordea, hango hitz denak, bana-banaka hartuz, egokiak direnik.”

Badakit hori ere guttito esatea dela.

Orientabide jeneral batzuk emango balitu Euskaltzaindiak alor horietan dabiltzanen lana nolabait gidatzeko: agian hori izango litzateke onena, ahal balitz. Baina zaila eta arriskutsua izango da.

Gida moduko arau batzuk hartuko balitu Euskaltzaindiak, orduan errazago izango litzaiokie gero egiten diren saioetarik zein diren gomendagarri esatea ere.

Egia da Euskaltzaindiak gaur arte erabaki guti hartu dituela hiztegiari buruz. 1959ko Apirilean eman zuen bat: “Euskal hitzak zein diren jakiteko bidea” (6). Bilbon egindako Biltzar Agiri baten ondorioa izan zen erabaki hura. Ondo gogoan dut zer-nolako iskanbila sortu zuen, baina uste dut guztiz beharrezkoa eta probetxuzkoa izan zela. Gero, Batasunerako hiztegia (7). Geroago, Zortzi Urte arteko Ikastola Hiztegia (8). Eta hori uste dut izan dela guztia.

1959ko Agiria atera zenean bizi zen oraino Altube jauna. Eta hauxe esan zidan: “Ez duzue deus berririk esan. Nik neure lanetan hori aspaldi esana dut”. Eta bai, halaxe da.

Besteak beste, Altubek badu lan bat, berak asko estimatzen zuena, Eusko Ikaskuntzak Gernikan 1922an egindako Biltzarrerako prestatua. Honela du titulua: “Euskel-Itz Barrijak. Eurok eraltzeko, erderaaik zetara lagun egin bear deuskuen”. Lan mamitsua da. Euskal hiztegiaren landan azaltzen diren istilu eta zoko-moko guztiak aztertzen eta argitzen ditu. Nik ez dut astirik lan

(6) “Declaración de la Academia de la Lengua Vasca acerca del vocabulario del euskera”, E (1959), 214-217.

(7) Ikus E (1968), 251.

(8) Ikus E (1975), 7-153.

horren edukina hemen puntuz-puntu azaltzeko; behin baino gehiagotan egin izan dut, gainera (9).

Altuberen lan hau, izendatuki aipatzen ez badu ere, Azkueren hiztegiaren kritika da, eta beren ustez purismo kontuan purista neurrizko edo moderatu direnen kritika. Horien ikusmoldeak okerrak eta euskararentzat kaltegarriak direla erakutsi nahi du.

Lan horretan kultura eta jakintza saileko hitzen arazoa ere ukitzen du. Altubek dioenez, esparru honetan bada terminologia internacional bat, funtsean greko eta latinetik hartua, eta hizkuntza bakoitzak hartu ohi duena, ortografian eta bukaeran aldaketa batzuk eginez. Altubek uste du bide hori hartu behar duela euskarak ere. Sobra ere badaki, ordea, bere garaiko euskal idazleak urrun zebiltzala hortik.

Kanpion-Broussainen txostenean argi eta garbi esaten da euskarak ez duela hortik joko, hots, zientzi hitzak euskal gordailuko sustraiekin eratuko dituela (10). 1920ko Abenduan Americo Castro jaunak hitzaldi bat egin zuen Bilbon eta uste dut horri erantzun nahi izan ziola harako hura esan zuenean: hori zela “lo mismo que querer vaciar el Nervión con unos cuantos cubos” (11).

Altubek honela epaitzen du garbizale horien jokaera: “Bakar-bide ori artzea —dio— ñoizkorik kaltegiñena, oraintxe litzakigu zuzen ere” (12).

Jakina denez, Grezia izan zen Zientziaren sehaska edo sorleku. Grezitarrek, nola lehenak ziren, beren hizkuntzatik moldatu zituzten hartako hitzak. Gero Erromak, latina kultur tresna egin nahi izan zuenean, ez zen hasi dena berriro egiten; grekoz egina zegoena etxera aldatu zuen. Eta latina dela bide, gauza bera egin dute gero Europako hizkuntza landu guztiek, nahiz eta ez denak neurri berean. Gaur ere jakintsuek grekoaren bide horretara jotzen dute beren hitzak moldatzeko eta hitzok gero hizkuntza landu guztiek onartzen dituzte. Errepide orokor horretarik euskara saihestea, hilobira bultzatzea izango litzateke. Horrekin, ordea, ez dugu ukatzen euskararen ernal iturria ere baliatu behar ez denik. Eta guttiago oraindik, euskara gaizki erabiltzea bedeinkatu behar dugunik. Ez ditzagun gauzak nahas.

Baina, jakina, maileguzko hitzak izango badira ere, oraindik gauza asko erabakitzeke dago: hitz horien ortografia, bukaera, multzo barneko hitzen ordenantza, etab.

\* \* \*

(9) Ikus E (1963), 293; (1971), 77; (1979), 611.

(10) CAMPION (ARTURO)-BROUSSAIN (PIERRE), “Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera”, E (1922), 1 z., 4-17. Urte honetan agertu zen lan hau **Euskera**-n; baina lehenago egina da eta liburuxka berezi batean argitarazia.

(11) AMERICO CASTRO, “El elemento extraño en el lenguaje”, *Curso de Lingüística*, Eusko Ikaskuntza, 1921.

(12) ALTUBE, o. cit., 88 or. (Tercer Congreso de la Sociedad de Estudios Vascos, Guernica 1922.)

Egun hauetan egin ditzagun, bada, geure elkar hizketak, eztabaidak etab. anaikero, soseguz, bake onean, behazunik gabe, argia euskararen onerako bilatuz. Besteren iritzian egon daitekeen egi puska jasotzeko beti ere prest gaudela. Eguberritako giro anaikorra ahantzi gabe.

Erabakiren bat hartzeko, bototara jo beharra gerta daitekeena da. Nik, egia esan, besterik ezean bakarrik joko nuke horretara, zeren mingoxtasuna utzi baitezake galtzailearen gogoan. Baina auzia finitzeko beharrezko gerta badadi, aukera hori ere hor dago.





# EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENAK:

## 1. HIZTEGIGINTZAZ

Hondarribian, 1981.eko Abenduaren 29an bildurik, Euskaltzaindiak honako hau aditzera ematen du: Euskaltzaindiak literatura eta gramatikaz beste alde, hiztegi lana du bere eginkizun nagusienetarikoa.

Hizkuntzarekiko plangintza orokor baten barnean sartua aurkitzen da hiztegigintza, eta Euskaltzaindiak erantzun egokiak eman nahi dizkio honi.

Langintza horretan ordea, maila bat baino gehiago bada eta beren arteko lehenetasuna kontutan eduki behar du. Euskal hiztegietan, adibidez:

– *Orokorra.*

– *Hiritartua.*

– *Espezializatuak.*

1. Hiztegi orokorrean, Euskaltzaindiak aspaldidanik hasiak dituen lanak aurrera daramatza ahalik eta lasterren buru emateko asmoz.

2. Bilera honetan beharrezkoa ikusi da batzorde bat sortzea, horretarako behar diren gaiak, ahalak eta lankideak biltzeko.

3. Zuzenean ez da Euskaltzaindiaren lana, beste edozein hizkuntzatan ere ez den bezala, hiztegi espezializatuen sortzea eta banan banako azterketa egitea, hizkuntzari eta euskararen egiturari dagozkion funtsezko puntuak zaintzea izan ezik.

Hitz teknikoetan Euskaltzaindiak pozik ikusten du grafia gai orokorrean erabakiak daudenek harrera ona izan dutela. Erabaki gabe daudenak lehenbailehen argitzen ahaleginduko da.

Ezin hobeki deritza Euskaltzaindiak edonork taldeka nahiz bakarka arlo honetan lan egiteari.

Adierazpen hau sinatzen dute: Fr. L. Villasante, Euskaltzainburuak; P. Altuna; X. Diharce-Iratzeder; J. Haritschelhar; J. Hiriart-Urruty; A. Irigoyen; E. Knörr; F. Krutwig; P. Lafitte; E. Larre; L. Mitxelena; P. Ondarra; J. San Martin eta J. M. Satrustegi, idazkariak.



## 2. EUSKARAREN GAITASUN AGIRIAZ

Hondarribian, 1981.eko Abenduaren 29an bildurik, Euskaltzaindia orain arte eman dituen tituluei buruz ondorio hauetara iritxi da.

Gauza jakina da Euskaltzaindiak eginbide hori hartu zuela 1972garrean Euskal Herriaren egoera eta sail horretako premia larria ikusirik.

Oraingo egoeraren aurrean argi ikusten du orain arte ematen ari den euskararen ezagupen agiria etorkizunean ez duela eman behar Euskal Herriko irakaskuntza euskararen aldetik bideratzen den neurrian.

a) Iparraldean nola joka bertako euskaltzainen baitan utzi da.

b) Nafarroari dagokionez lehen bezala jarraituko du oraingoz.

d) Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren eremuan honelako agiri horiek ez dituela aurrera ematen jarraitu behar uste du, ondoko puntu hauek bete ditzan eskatzen diolarik Eusko Jaurlaritzari, lehen eta geroaren artean inolako etenik ez urradurarik gerta ez dadin:

– Euskaltzaindiak orain arte izan duen gutieneko mailari eustea.

– Idatz arauak errespetatzea eta ortografia bakarra izatea hizkuntza-  
rentzat eta euskalki guztientzat.

– Euskara batuaren arauak jakin daitezen eskatzea.

– Titulua edonori irekia izatea bai irakaskuntzan bai bestelako lanbide-  
tan arituko denari edota edozein arrazoigatik bere burua hobeki hornitu nahi-  
ko duenari.

– Aurten jende asko agiri hori eskuratzeko ikastaroak egiten ari denez  
gero, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berak azterketak antolatu eta agiri  
horiek eman ditzan, luza gabe bere erabakia ageraraziz.

Adierazpen hau sinatzen dute: Fr. L. Villasante, Euskaltzainburuak; P. Altuna; J. L. Davant; X. Diharce-Iratzeder; J. Haritschelhar; J. Hiriart-Urruty; A. Irigoyen; E. Knörr; F. Krutwig; P. Lafitte; E. Larre; L. Mitxelena; P. Ondarra; J. San Martin eta J. M. Satrustegik.